

Juan Diego Flórez, tenorra / tenor

Juan Diego Flórezek (Lima, 1973) oso gaztetatik ekin zion bere ibilbide musikari, Peruko musika, pop zein rock estiloak abestuz eta joz. 17 urterekin, Limako Kontserbatorio Nazionalean hasi zituen ikasketak, eta hiru urte geroago, Filadelfiako Curtis Institute of Music-en kantua ikasteko beka lortu zuen. 1996ko Pésaroko Rossini Opera Jaialdian egindako debutean benetako arrakasta izan zuen eta nazioarteko ibilbide bikain bati hasiera eman zion. Orduz geroztik, etengabe aritu da munduko antzoki eta kontzertu-areto garrantzitsuenetan, nazioartean ezagunak diren zuzendariekin batera.

Ospe berezia lortu zuen errepertorio *belcantistan* egindako interpretazioengatik, baina azken urteetan zehar, frantziar heroi erromantikoen emanaldiek ere erreferentziazko tenorra bihurtu dute. Bere azken debutak honako hauek izan dira: Romeo (*Roméo et Juliette*) Vienako Estatu Operan, Gennaro (*Lucrezia Borgia*) Salzburgoko Jaialdian eta Bavariako Estatu Operan, Hoffmann (*Les Contes d'Hoffmann*) Monte-Carloko Operan, Ricciardo (*Ricciardo e Zoraide*) Rossini Opera Jaialdian edo Alfredo (*La traviata*) New Yorkeko Metropolitan Operan.

CDen katalogo zabala du, baita formatu berean eta DVDan argitaratutako opera osoak ere. Azken argitalpenen artean Mozarten ariei eskainitako diskoa eta Latinoamerikako kanten bilduma nabarmentzen dira. BBCK historiako tenorerik onenetakoa izendatu du eta sari zein ohore ugari jaso ditu; horien artean, Peruk ematen duen aitortzarik gorena, Eguzkiaren Ordenaren Gurutze Handia. 2022an Rossini Opera Jaialdiko zuzendari artistiko izendatu zuten.

Juan Diego Flórez (Lima, 1973) inició su carrera musical desde muy joven cantando y tocando música peruana, pop y rock. A los 17 años, inició sus estudios en el Conservatorio Nacional de Lima y tres años más tarde obtuvo una beca para estudiar canto en el Curtis Institute of Music de Filadelfia. Su debut en el Rossini Opera Festival de Pésaro de 1996 fue un verdadero éxito y marcó el inicio de una carrera estelar. Desde entonces, ha actuado de manera constante en los teatros y salas de conciertos más importantes del mundo junto a directores de fama internacional.

Recibió un especial renombre por sus interpretaciones en el repertorio belcantista, pero en los últimos años, sus interpretaciones de los héroes románticos franceses le han valido asimismo un gran reconocimiento. Sus debuts más recientes incluyen Romeo (*Roméo et Juliette*) en la Ópera Estatal de Viena, Gennaro (*Lucrezia Borgia*) en el Festival de Salzburgo y en Ópera Estatal de Baviera, Hoffmann (*Les Contes d'Hoffmann*) en la Opéra de Monte-Carlo, Ricciardo (*Ricciardo e Zoraide*) en el Rossini Opera Festival o Alfredo (*La traviata*) en el Metropolitan Opera de Nueva York.

Cuenta con un amplio catálogo de CDs, así como de óperas completas en CD y DVD. Sus últimas publicaciones incluyen un disco dedicado a arias de Mozart, y un álbum de canciones latinoamericanas. Ha sido reconocido como uno de los mejores tenores de la historia por la BBC y ha recibido numerosos premios y distinciones, incluyendo la distinción más alta otorgada por el Perú, la Gran Cruz de la Orden del Sol. En 2022 fue nombrado Director Artístico del Rossini Opera Festival.